Iñaki Larrañagarekin elkar hizketa: «Normalizazioa ez da elebitasun soziala»

Euskararen egoerari buruzko diagnosia ezagutzeko, gaixoa X-izpietan edota termometroa jarrita aztertzen den moduan, Iñaki Larrañaga dugu begiralerik onena segurutik. SIADECOn urtez urte egin dituen azterketak ditugu lekuko, hala nola han hemenka egin dituen ekarpenak. Oraingo honetan, egoeraren diagnosiaz iharduteaz gain, hizkuntzaren beste zenbait alderdiri ere heldu diogu. Normalizazioa eta normalizaziora heltzeko baldintza sozial eta politikoak tartean. Zerorrek irakurriko duzu. Erantzun errazik ez duten galderen eremuan aritu eta ezezagunari lur pittin bat irabazi diogulakoan gaude.

GALDERA: Orain amaitu berria duzuen lanetik abia gaitezke, Iparraldeko azterketa soziolinguistikotik alegia. Uste baino datu okerragoak bildu dituzue ezta?

IÑAKI LARRAÑAGA: Iparraldeko egoerari buruz nik esango nuke ezagupenari dagokionez arazo sakonena zera dela: jende askok dakiela euskara hitz egiten, erdiek baino gehiagok (%57) baina Euskara dakitenak berrogei urtetik gorakoak direla; berrogeitik hogeira artekoak gutxi eta hogei urtetik beherakoak askoz gutxiago. Hor dago gakoa. Eta justu gainera euskara indartsu dagoen lurraldeetan, noski, bereziki Iparraldeko barnekalde osoan gertatzen bait da hori.

Hori guretzat nahiko sorpresa izan da itxuraz indarrean zegoen hizkuntza, kinka larrian dagoela adierazten bait du. Izan ere, etorkizunari begira asuntoa nahiko kolokan gelditzen da; belaunaldi pare bat eta horrek ez baldin badu beste biderik hartzen berrogei urtetik gorakoek desagertzen diren heinean, eta berrikuntzarik ez dagoen edo hiztun berririk sortzen ez den neurrian, hil egingo bait da hizkuntza.

Hemen ikusten da hizkuntzaren nola halako asfisi arriskua, arnas biderik gabe gelditzen ari dela, alegia. Bestalde, elementu nahiko adierazgarria zera da, ezagupen/erabilpenaren arteko jauzia edo desberdintasuna.Ezagutu, erdiek baino gehiagok ezagutzen bait

dute eta erabili oso gutxik, batazbeste dakitenen erdiek baino gutxiagok, batez ere gazteen artean, eta noski, zenbat eta zonalde erdaldunduagoa, orduan eta gutxiago erabiltzen da.

Eta gero, eritzi, jarrera, motibapen eta horiekiko bi fenomeno agertzen dira: euskararen alde motibatuenak edo euskararen alde jarrera beroena agertzen dutenak, euskara ez dakitenak dira, berrogei urtetik beherakoak. Eta euskara dakitenek berriz, nahiko jarrera epela agertzen dute. Euskara dakitenek ez dute interes askorik euskararekiko, beraien seme-alabei irakasteko eta... alderantziz, ez dakitenek eta galdu dutenek, jaso ez dutenek, transmisio bidez eskuratu ez dutenek, horiek dira interes handiena agertzen dutenak,galdutakoaren nostalgiaz edo...

Bestetik, zonalde euskaldunenak, Behe Nafarroak, motibapen aldetik, atxikimendu eskasa agertzen du, eta zonalde erdaldunduagoek, bai Zuberoa eta bai Lapurdi aldeak, aitzitik, euskararekiko jarrera baikorragoa azaltzen dute.

G: Komunitate Autonomoan ez dirudi horrelakorik gertatzen denik.Nafarroa aldean bai?

I.L.: Bortziri aldean eta, garbi-garbi. Eta nik uste ez dugula holako azterketa zehatzik egin, baina agian hemengo zonalde euskaldunenetan ere, prentsatzen dut. Urola aldean eta Lea-Artibai aldean ere, zonalde euskaldunenak izanik, eta agian hor ere horrelako zerbait gertatuko litzatekeela, guztiz euskaldunak izanik euskararekiko motibapen gutxien bezala edo, «beti hitzegiten den hizkuntza bezala» ikustea eta ondorioz, hizkuntzarekiko atxikimendu gutxiago izatea.

Nik uste diat han ezezik hemen ere horralako zerbait gertatzen dela iritzi eta jarrera aldetik eta hor bazidurik hipotesi mailan edo ez ote den horrelako zerbait planteiatzen: hizkuntza hori beti ezagutu eta bizi izan duen batek galtzeko arriskurik edo beldurrik ez ote duen sentitzen, batetik, eta beste aldetik, hizkuntzari premiarik eta interesik ez ote dion ikusten, interes handiagoa ikusten diola beste hizkuntzari... Eta hori oso nabarmena da Iparraldean, adibidez: «hemen behar dena frantsesa da, eta frantsesarekin bizi daiteke», etab., etab. Status soziala frantsesarekin lotuta dagoelako eta euskararekin, noski, ezin da bizi.

«Euskara beti ezagutu eta bizi izan duen batek galtzeko arriskurik edo beldurrik ez du sentitzen, batetik, eta beste aldetik, hizkuntzari premiarik eta interesik ez dio ikusten, interes haundiagoa ikusten dio beste hizkuntzari»

Eta horrek balio dik hemengo zonalde euskaldunenetarako ere.Nafarroako herrialdean, adibidez, guk aztertu dugun kasua Bortzirietakoa izan duk eta hori garbi azaldu duk. Bestalde Txepetxek aspaldi batean egin zuen Maldaerrekan azterketa, Saldias eta Labaien inguru horretan, gauza bera aipatzen zian, alegia, motibapen ezkor horiek joaten zirela norbere hiz-

kuntzarekiko gorrotoa sentitzeraino. Azken batean, euskara zela eta ez zela, euskararen bizkar botatzen zituztelako beren atsekabe eta nahigabe guztiak.

Bazegok horrelako koerentzia bat kasu guzti horietan, eta nik uste diat hor beste fenomeno bat ematen ari dela; hemen Hegoaldean zonalde erdaldunagoetan, industrialetan eta hiritartuagoetan, euskararekiko motibapenak, jarrerak eta balorapenak baikorragoak dituk, zalantzarik gabe euskaldunen aldetik eta baita erdaldunen aldetik ere.

G.: Eta kasu horietan zonalde euskaldunenetan, alegia, erdaldunen jarrera zein da ?

I.L.: Bada, kasu gehienetan erdaldunen jarrera indiferentziazkoa ezezik errezelokoa ere bada. Euskaraz ez dakiten gazteak alde batera utzirik, horiek euskararen aldeko agertzen bait dira heldu jende artean adibidez, bai Ipar aldean eta bai Bortziri aldean indiferentziazkoa eta erretxazo oso fuertearena da: «Guk ez dugu sekula euskaraz egin eta ez etorri euskaraz bizi behar dugula esaten».

«Zonalde euskaldunenetan kasu gehienetan erdaldunen jarrera indiferentziazkoa ezezik errezelozkoa ere bada»

G.: Horrek esan nahi du, hipotesi modura, beste tokietan, Israelen adibidez, normalizatzeko bidetan sartu ahala eta nolabait normalizateko pausuak eman direnean hizkuntzarekiko motibazioa ahultzen joan dela?

I.L.: Ez, ez, alderantziz, normalizazioa motibazioarekin lotuta joaten da, ordezkapen-prozesuan, ordea, motibazioa ahuldu egiten da, hau da, motibapena ahultzen dihoan neurrian, hizkuntzaren ordezkapenak aurrera egiten du eta, alderantziz, errekuperatzen doanean motibapenak eragile moduan jokatzen du.

Arazoaren larritasuna ahultzen doan neurrian, berriz, ez da motibazioa beti ahultzen. Gertatzen dena zera da, arazoaren larritasuna gehiagotzen baldin badoa eta ez badago inolako berreskurapen-zantzurik orduan ez dagoela zeri heldurik motibapen baikorrak sortzeko. Baina, baldin badago nolahalako berreskurapen-jarrera, edo ahaleginik, orduan hizkuntza baten ezagupena, balio sozial bezala sentitzen bada, horrek erakarmena eta indarra baduela eta balio soziala duen neurrian motibapena hizkuntzaren alde jartzen dela eta motorraren funtzioa betetzen duela hizkuntzaren berreskuratze-prozesu horretan. Hori ez bakarkako fenomeno bezala baizik eta fenomeno kolektibo bezala.

G.: Hau da, hizkuntza gertaera soziala dela ...

I.L.: Nik uste dut, hizkuntzarekiko planteiamendua sarritan ikuspegi indibidualista edo norbanako ikuspegitik egiten dela: nik euskara ikasi nahi dut, nik euskara behar dut. Erabaki pertsonalak eta besterik ez. Eta, noski, oso inportantea eta adierazgarria zera da: hizkuntza gertaera soziala

turra sartu nahian, nor nagusituko.

G.: Beste mekanismo erreproduzitzaileak (familiarena, eskolarena...) erabilgarri izateko ez da gaur egun determinantea komunikabideen eragina?

I.L.: Zalantzarik gabe. Nik ez ditut aipatu garrantziaren arabera, baizik eta prozesu kronologikoaren arabera; familian hasi, eskolan segi, baina, dudarik gabe, komunikabide sozialek eta mass-mediek duten eragina izugarria da hizkuntzari dagokionez. Nik uste dut, komunikabide sozialak sormenaren iturburu nagusienetako bat direla eta transmisio kulturalaren mekanismoa. Hori noski, ez da hutsean egiten, hori hizkuntza baten soportearekin egiten da. Pentsa, telebistak eta irratiek erabiltzen duten hizkuntz kalitatearen garrantzia, eredu bihurtzen bait dira. Euskarari dagokionean atera kontuak, kalitate eta duintasun minimoarekin emateak zer garrantzia duen. Alde horretatik, hizkuntzaren errekurtso mekaniko bezala garrantzia izugarrizkoa da. Baliteke familiaren edo eskolaren adinakoa edo handiagoa izatea.

«Euskarak ez dauzka bere erreprodukzioak garantizatzeko edo ziurtatzeko mekanismoak. Erdarak ziurtatuta dauzka mekanismo horiek, eta oso ondo arduratzen dira gal ez ditzan eta manten ditzan eta alor berriak sortzen diren heinean irabaz ditzan»

G.: Hor inpresioa ematen zidak hik ikusten dukela zera, alor bakoitzean, mekanismo horiek galduta dauzkagula edo...

I.L.: Inoiz ez ditugu eskuan eduki, komunikabide sozialak... ba, pentsa, zer eskasia dagoen, gure irratiak eta telebista noizkoak diren, eta pentsa nola dauden, prentsa egunkari euskaldunik gabe gaudela... etab. Hor gaude benetan, nimimoz azpitiko egoera rakitikoan, egoera anemikoan gaudela ezin uka, azkeneko urteotan zerbait lortu bada ere.

Laneko mundua zeharo erdalduna duk eta horrek badik eragin gaizto bat, hau da, pertsona batek bere familian, eta bere lagunartean euskara badarabil, laneko mundura pasatzerakoan jantziekin egiten duguna egiten dik: etxeko jantziak erantzi eta laneko arropak jantzi eta zortzi-hamar ordu han pasa eta gero alderantzizkoa egin. Hizkuntzarekin gauza bera: etxeko hizkuntza utzi, lan munduko hizkuntza hartu, zortzi-hamar ordu han pasa eta gero alderantzizkoa. Hori horretan gelditukо balitz txarra huke, eguneko zortzi-hamar orduk erosionatu egiten dutelako normalean hizkuntza, baina oraindik badik beste kalte bat ere, laneko munduan erabiltzen den hiztegi eta terminologia hori hedatu egiten bait da gizarteko alor eta bizitza osora, eta lanean geroz eta gehiago erabiltzen direnez, horrek intzidentzia izugarria dik gizarte-bizitzan. Orduan, gertatzen duk laneko mundua ezezik han erabiltzen den hizkuntzak kanpoan eta gizartean ere izugarrizko eragina duela. Eta gure ka-

suan deseuskalduntze prozesua izugarri bizkortzen eta indartzen duela.

«Ikasketa ez unibertsitarioan ari den ikaslegoaren %60tik gora oraindik erdal ereduetan zebilek; beraz, erdaldun mantentzeko mekanismoak dituk hor funtzionatzen ari direnak»

Gizarteko zerbitzuak ere deseuskaldunduak aurkitzen dituk. Administraritza inoiz ez duk euskalduna izan, gizarte-zerbitzu moderno edo modernizatuek (osasungintza, banketxeak edo komertzio-mundua) guztiz familiarrak edo herri txikietakoak izan direnean, funtzionatu diate euskaraz, baina dudarik gabe, maila industrial batean funtzionatzen hasi direnean, guztiz erdaldundu dituk eta faktore erdalduntzaile bezala jokatzen ditek.

G.: Eskola ere faktore erdalduntzaile izan da?

I.L.: Eta nolakoa gainera! Eskolak izugarrizko kaltea egin dik desuskalduntze-prozesu horretan. Baina, azken urte hauetan euskarari sarbidea eman zaionetik eskolan ere, aldaketak izan dira. Hor dago Ikastolen esperientzia, 25-30 urtetako lana. Dena den, Ikastolak egiten ari diren lana aipatzekoa baldin bada ere eta, nahiz eta beste eskoletara ere zabaldu den, ikuskizun dago eskolak benetan haurrak euskalduntzea lortzen duen eta zenbateraino benetan euskararen jabetasun bat ematen dieten. Badagoelako arrisku izugarria hizkuntzaren halakao sasi-hizkuntza batean hurbilpen mailan gelditzeko herriko euskararen ezagutza sakon batera iritsi gabe, ereduek ez dutelako horretarako jokurik ematen eta, zuzenean euskararen irakaskuntza euskaraz eta euskaraz bakarrik egitea ezinezkoa gertatu delako. Oduan, hori egiten ez den neurrian berreuskalduntzearen prozesua ere baldintzatua eta mugatua gertatzen da, nolabait. Eta prozesu hori azken urte hauetan goraka badoa ere, B eta D ereduetan jendea gero eta gehiago matrikulatzen ari delako, bazidurik azken urte pare batean edo,agian sozialistek Hezkuntz Kontseilaritza hartu zutenetik, A eredua eragin eta bultzatu nahia berriro pizten ari direla. Hori ere ez duk, noski, euskararen alde funtzionatzen ari. Zoritxarrez, oraindik ikasketa ez unibertsitarioetan ari den ikaslegoaren % 60tik gora oraindik erdal ereduetan zebilek, beraz, erdaldun mantentzeko mekanismoak dituk hor funtziona tzen ari direnak.

G.: Lan-mundua, eskola... eta familia ere porrot egiten ari da euskararen transmisioan!

I.L.: Eta azkenik familiara etortzen bagara, familiako transmisioaren mekanismoa ere modu alarmagarrian joan duk gutxitzen edo galtzen. Eta hor adibide alarmagarrienak izango hituzke lehen aipaturiko kasuak, Iparraldekoa eta Bortzirietakoa. Hor gertatzen da guraso guztiek euskara jakin arren, guraso horien seme-alabek euskara jakitea erditik behera ere etorri dela zenbait kasutan; zenbait zonaldetan erdiek euskara galdu egin dutela ia ikasi orduko. Iparraldean jokatu duten faktoreen artean, bereziki aipatu behar da Frantziako eskola-sis-

dela eta gertaera sozial iraunkorra; hizkuntz komunitate iraunkor batek ziurtatzen duela hizkuntzaren iraupena. Soziologiaren sortzailea izan zen Augusto Compte-ren hitzak hona ekarriz gogora daiteke: «hizkuntza dela giza erakundeetan sozialena...» horrek esan nahi du, noski, hiztunik ez dagoen kasuan kitto hizkuntza, hizkuntza ez da bizitzen. Orduan, gertaera sozial guztiek eta iraunkorrak direnek bereziki, badituzte beren erreprodukzio sozialaren mekanismoak eta hori hizkuntzarekin gertatzen den bezala gertatzen da beste edozein gertaera sozial eta iraunkorrekin. Hizkuntzaren kasuan oso nabarmena da mekanismo horiek zeintzu diren eta ezinbestekoak dituela hizkuntza horrek iraungo baldin badu eta bizirik iraun nahi badu.

G.: Zein dira, bada, mekanismo horiek?

I.L.: Hasteko, familia bidez egiten den transmisioa; mekanismo hori da hizkuntza guztietan nagusiena eta oparoena. Beren hiztunak gehienbat horrela lortzen dituzte transmisioz. Gertatzen da, mekanismo horrek huts egiten duen heinean, hizkuntzaren erosio izugarria martxan jartzen dela. Horren ondoren eskolaren mekanismoa dator, eskolak egiten duelako familian jasotako hizkuntzaren kontsolidazioa, kulturizazioa. Txepetxek esaten du, ikasketa naturala etxean egiten dela eta ikasketa kulturala eskolan egiten dela. Hau ezinbestekoa zaio hizkuntza bati iraungo baldin badu. Izan ere, familia bidez egiten den ikasketa hori hizkuntza batentzat gutxiegi da soporte modura. Familiak emandako hikuntza kaleak jaten badu, ez du iraupenik. Adibidez, Iparraldeko kasua nabarmena da.

Ondoren datoz beste mekanismoak, adibidez, laneko mundua. Familian eta eskolan ikasitako hizkuntza horrek laneko munduan jarraipen bat izan behar du eta, gainera, egokitu egin behar du laneko munduan espezifikoak diren alor guztietara. Horrek esan nahi du, hiztegien ugalketa, lexikoaren zabaltzea eta hizkuntzaren aberastasuna handitzen doala.

G.: Lan-mundua, eskola, familiaz... gainera, bada hizkuntzaren transmisiogune gehiago, ezta?

I.L.: Bai. Laneko mundutik pasa gintezke gizarte-bizitzako beste alor batzutara, gizarteko zerbitzu moeta guztietara; zuk administraritzara joan behar baduzu, edo erosketak egitera, edo banketxera edo sendagilearengana, alor guzti horiek, hizkuntza baten soportea daramate; jendearen harre-

«Erreprodukzio-mekanismoak huts egiten eta galtzen hasten badira eta, azken erreduktoa izan daitekeen familiarena ere galtzen bada, hizkuntza horrenak egin du, jadanik ez bait dauka erreprodukzio-biderik eta, nik uste, hizkuntz ordezkapenaren problemarik grabeena hori da»

manak hizkuntzarekin gauzatzen bait dira, hizkuntzak funtzionatzen du etengabe. Hizkuntza batak ala besteak, hau da, euskara ez bada beste bat izango da, baina beti hizkuntza baten bitartez gauzatzen dira harreman horiek. Gure kasuan garbi, edo frantsesaren, edo gaztelararen bidez, eta badirudi hori normalagoa dela euskararen bitartez egitea baino. Azkenik eta beriziki, komunikabide sozialak guzti horren nolabaiteko suspertzaile eta eragile gertatzen direla esango genuke.

Komunikabide sozialek izugarrizko funtzioa eta papera betetzen dute. Beste arloetan erabiliko den hizkuntza, askotan komunikabide sozialetan sortzen da, bai hizkuntza mintzatuaren eta bai idatziaren mailan ere.

G.: Funtsezkoa da, beraz, hizkuntzaren erreprodukzio mekanismoak ziurtatzea bere normalizaziorako?

I.L.:Gertatzen dena da normalizatua dagoen hizkuntza batek mekanismo guzti horiek martxan dauzkala eta funtzionatzen ari direla a tope. Gu jartzen bagara ingelesaren kasuan ikusiko dugu hizkuntzak alor guzti horietan funtzionatzeko eta erreproduzitzeko ez daukala bakarrik montaje instituzionala eta legezko baten babesa, baizik eta izugarrizko inbertsioak , dirutza beldurgarriak mugitzen direla hizkuntzaren erreprodukzio sistema hori ziurtatzeko. Hor milioika milio dolar joaten dira hori ziurtatzeko. Horrek esan nahi du hizkuntzak baldintza minimo batzu behar dituela bizi ahal izateko. Mekanismo horiek huts egiten eta galtzen hasten badira eta, azken erreduktoa izan daitekeen familiarena ere galtzen bada, hizkuntza horrenak egin duela, jadanik ez bait dauka erreprodukzio-biderik eta, nik uste hizkuntz ordezkapenaren problemarik grabeena hori dela. Azken finean, hizkuntzari arnasbidea kendu egiten zaio, asfisia datorkio erreprodukzio mekanismoek ez dutelako funtzionatzen.

G.: Gatozen euskararen kasura. Esana duzu mekanismo horiek huts egiten hasiak direla.

I.L.: Horixe. Euskararen kasuan zer gertatzen da? Bere erreprodukzio soziala egiteko minimoak liratekeen alorrak ez dauzkala bere esku. Eta hori badakigu. Euskarak ez dauzka bere erreprodukzioak garantizatzeko edo ziurtatzeko mekanismoak. Ezin da esan galdu dituenik kasu batzutan, ez bait ditu inoiz eskuratu: ez administrazioa, ez komunikabide sozialak, eta ez laneko mundua, batez ere, aro kapitalista modernoko eguneko mundua. Mundu tradizionala bai, baina hor gelditu da marjinatuta, artesautza-mundura, nekazaritza, arrantza...etab.era mugaturik.

Arazorik larriena edo hizkuntzaren kinka nolabait, erreprodukzio-mekanismo minimoak eskuratzea da. Horregatik ez du balio hizkuntza erabaki pertsonala dela, norberaren esku dagoela, norberak ahalegindu behar duela, etab. esateak. Gu ez gara erdaldun hautatu dugulako eta, erdaldunek ez dute orain ere hautamenik egiten erdal hizkuntzarekin eta ez dute horren beharrik sentitu. Erdarak ziurtatua dauzka mekanismo horiek, eta oso ondo arduratzen dira gal ez ditzan eta manten ditzan eta alor berriak sortzen diren heinean irabaz ditzan. Ikusi besterik ez dago zer borroka dabilkiten goi-mailako hizkuntzak, elkarri terrenoa jan nahiean edo. Beldur dira gaztelaniak galdu egingo duela frantsesaren edota ingelesaren ondoan, indartsuenak nagusituko direla, etab., etab. Hor dabiltza alor guztietan mu-

tema: lehen, sei urterekin hartzen zizkian haurrak eskolak, eta azken 15-20 urtetan hiru urterekin hartzen ditu, orduan, etxean oraindik hizkuntza kontsolidatu gabe dagoen unean haurrak hartu eta noski, irakaskuntza frantses hutsean eman eta, kitto etxeko euskara. Eta etxekoen aldetik, ez dagoen halako berotasun handirik hizkuntzari eusteko, bada eskola, kalea, telebista...etab., ziplo euskara.

«Familiako transmisioaren mekanismoa ere modu alarmagarrian joan duk gutxitzen edo galtzen»

Antzeko zerbait, baina faktore desberdinengatik, gertatzen duk Bortzirietan eta kasua nahiko berezia duk. Bortzirietako erdaldunetatik %30 bakarrik duk kanpoan jaioa, %70 bertan jaioa eta bertako jendea duk. Eta euskaldun familietan kasu askotan, gaur erdaldun direnen aita-amak eta aiton-amonak %30ean edo gehiagotan, euskaldunak hituen. Izugarrizko erosioa duk. Gipuzkoan adibidez, oso desberdina duk, baina 81ean eginiko ikerketa batean agertzen zen, %11 zirela guraso biak euskara ongi ezagutu eta beren seme-alabek maila berdinean ezagutzen ez zutenak. Eta hori Urola aldean eta Kostaldean eta Tolosaldean batazbesteko baxuagoak zirela, baina Donostia edo Irun aldera joz gero, ia 20, 25, 30, 35eraino jaisten ziren ehunekoak. Hori 81ean eta horrek esan nahi dik gure erreprodukzio-mekanismoak pipiak jota daudela eta hizkuntzaren egoeraren larritasuna nabarmena dela.

G.: Guzti honek bi gauzatara narama, bata konponente asko daudela hor sartzen direnak, nolabait esateko, batek bakarrik ez duela eragiten, ez dela garantia ezertarako, eta bestea, kolektiboki giza-izaera kolektiboa denez gero, erabakia euskalduntzearena, normalizatzearena, kolektiboa behar duela izan, herri batek ezin duela indibidualki erabaki euskalduntzea, normalizatzea, kolektiboki hartu behar duela erabaki hori.

I.L.: Ezin dena zera da, erabaki hori norbanakoaren mailan uztea.

G.: Eta hori nola egin liteke, herri batek nola hartzen du erabaki hori kolektiboki?

I.L.: Hor dago koska. Errezeta hori balego... baina ez da errezeta-kontua. Herri batek nola hartzen duen erabaki hori? Dudarik gabe, gertaera sozialak bere mekanismoak dituen bezala, baditu baita ere baldintzak, hau da, gertaera soziala ematen da baldintza batzu ematen direnean, gertaera sozialetan ez da kasualitaterik, edo txurrorik, edota hau atera da ez dakigu zergatik; batez ere gertaera sozial iraunkorretan eta instituzionalizatuetan. Nik uste dut halako erabaki kolektiboek soporte bezala baldintza batzu behar dituztela; beraz mekanismo ho-

«Bortzirietako erdaldunetatik %30 bakarrik da kanpoan jaioa, %70 bertan jaioa eta bertako jendea da»



«Arazoaren larritasuna gehiagotzen badoa eta ez badago inolako berreskurapen zantzurik orduan ez dago zeri heldurik motibapen baikorrak sortzeko»

riek euskararen alde funtzionatuko baldin badute baldintza horiek jarri egin behar dira; mekanismo horiek gaur euskararen aurka funtzionatzen badute, euskararen alde funtziona dezaten eragin behar da. Gizarte bati ezin zaio esan ibiltzeko hankak mozturik baldin baditu, edo pertsona edo gizarte bati ezin zaio eskatu normal bizitzeko aurretik ez baldin baditu horretarako baldintzak, edo bitartekoak eskuratu, kasu honetan, asuntoa da jakitea zein diren, baldintzak euskararen alde jarriko lituzketen mekanismoak. Eta hor, dudarik gabe zera dago, herri mugimenduen eta agintearen arteko harreman dialektikoa. Bi polo horien arteko harremanetatik sortu beharko lirateke euskararen alde jokatuko luketen erreprodukzio-mekanismo horiek, berreskuratzen joateko baldintzak. Alor horietako bat, bakarka ez da nahikoa euskalduntze-prozesu hori bideratzeko. Arazoa konplexua da eta faktore asko dago. Multibariantea den fenomeno hori, ordea, nola bideratu, aldagai guzti horiek nola mugitu gaur euskararen kontra jokatzen duena euskararen alde jartzeko? Hitz bitan arazoa hau da; nola sortu euskararen aldeko inertziak? Gaurko inertziak erdararen al-

dekoak dira. Lluis Aracil-ek esaten du: «gaur zirkulu bizioso batzutan sartuta gaude eta, euskara zirkulu biziosoan sarturik dago, galtzailearen zirkulu biziosoan eta guk zirkulu birtuosoak sortu beharko genituzke, garaipenerako bidera eramango gintuzketenak, eta prozesuari beste joera emango lioketenak, euskara galtzera ez, irabaztera baizik eramango dutenak».

G.: Nola irten, ordea, zirkulu biziosotik? Nola sartu zirkulu birtuosoan?

I.L.:Inplikazio serio edo fuerte bat egon behar du, bai herri-mugimenduaren eta baita agintearen aldetik ere. Nik uste, dudarik gabe, ezin dela planteiatu egoera horren konponbidea edo irtenbidea inplikazio eskas edo erdipurdiko batekin. Proiektu hori oso serioa da, globala da, inportantea da, eta noski horrek suposatzen du mogimendu sozial inportante bat, eta agintearen inplikazio serio bat. Eta horrekin, laguntzatxoak, iniziatiba hau edo beste, edo subentzioak ematea ez da kontua. Askoz sakonagoa da eta seriotasunez heldu beharrekoa konpondu nahi bada, behintzat.

Era berean, herri-mugimenduaren aldetik ez da nahiko noiz behinkako parte hartzea edo gesto sinbolikoak egitea. Horrela jokatuz ezingo da inolaz ere berreskurapen-prozesurik sendotu eta herri honetan hain zabaldurik dagoen hipokresia soziala (denok euskararen alde baina lasai hiltzen utzi) lehenaz gainera indartuko dugu.

Puntu honetara iristean alderdi politikoei buruz aipamen berezi bat egin beharko genikek, beraien artean euskararekiko nabari diren jarreragatik. Gai honek azterketa sakonago eta zabalago bat eskatuko lukeen arren, hemen aipamen labur bat egitera mugatuko nauk.

Euskarari dagokionez, alderdi politikoen artean berezi beharra dagoela uste diat, batetik alderdi estatalistak, horien jarrera indiferentziazkoa ez denean sistematikoki aurka egitekoa dela esateko (begira PSOEren jokaera).

«Abertzale izeneko alderdien artean, jokabide guztiak berdin ez badira ere, esan beharra zegok hizkuntzaren arazoari dagokionez, sakon sakonean, kanpora beste itxura bat agertu nahi izan arren, inhibizio jarrera dela nagusi»

Abertzale izeneko alderdien artean, jokabide guztiak berdin ez badira ere, esan beharra zegok hizkuntzaren arazoari sakon sakonean, kanpora beste itxura bat agertu nahi izan arren nire ikuspegitik ikusita behintzat, inhibizio jarrera dela nagusi. Hizkuntzaren arazoa, teoriaz, lehen mailako arazoen artean kokatzen bada ere, egunereko praxian lehentasun hori ez duk lehen mailako arazoen artean kokatzen. Inori minik emateko edo jendea uxatzeko beldurrez euskara ez duk ezinbesteko esijentzia bezala esteko esijentzia bezala onartzen, ez alderdien aparatoen barneko funtzionamenduan ez eta kanpoan eguneroko politikagintzan. (Parlamentu, Junta General, Udaletxe... e.a.). Nahiz eta gero noizbehinka euskararen aldeko proklamazio solemneak egiten jarraitu. Hau ere aipa-

tu dugun hipokresia sozialaren barnean sartuko huke.

G.: Hipokresiak hipokresia, hizkuntz normalizazioaren arazoa dugu afera.

I.L.:Bai noski, eta horretan badago zer esanik. Izan ere normalizazioa gauza askotarako erabiltzen den hitza da, hitz tranpa bezala funtzionatzen ari da eta definizioak argitasun bat eskatzen du, askotan erabiltzen delako soziolinguistika-munduan ezezik politika-arloan edo beste arlo kulturaletan ere. Soziolinguistikari dagokionean normalkuntza esaten denean azken batean zera esan nahi da, hizkuntza batek bere hizkuntz komunitatean sortzen diren funtzio eta behar guztiei erantzuteko gai izan behar duela, praktikan hizkuntza bakarra. Kasu honetan euskarak hizkuntz komunitate euskaldunaren hizkuntza bakarra izan behar duela esan nahi du. Esan beharko litzateke, beraz, normalizazioa ez dela elebitasun orekatua,normalizazioa ez dela koofizialtasuna,ez dela legezko izatea, baizik eta berezko definizioak hizkuntzaren nagusitasunaren eta lehentasunaren kontzeptuak dakartzala,eta nolabait, esklusibotasunera daramala. Hori oso garbi gelditu duk duela aste batzu hemen Donostian ospatu den Soziologi Kongresuko lantalde bateko ponentzia baten eztabaidaren barnean, normalizazioak,helburu bezala planteiaturik, lurralde-esklusibotasuna suposatzen duela. Hori bera esaten dik Txepetxek bere azken liburuan *Un futuro para nuestro pasado*. Gure arazoa zera da orain, bipiak jota gauden egoera honetatik atera eta prozesuaren helburu den normalizaziora jo nahi badugu, zein den jarraitu behar dugun bidea. Prozesuak bideratu egin beharko dik noski,lehen aipatu ditugun pausu horietaz baliatuz,baina beti izango dituk helburu trantsitorioak, bai elebitasun orekatua, bai koofizialtasuna edo bai legeztatzea, bidenabar, gainditzen joan behar direnak hizkuntzaren egoera normalizatu batetara iritsi nahi baldin bada.Orduan, garbi utzi nahi diat hori, orain egin daitezkeen pausuak helburu trantsitorio bezala hartu behar direla, azken batean besteari oztopo egin ez diezaioten.

«Esan beharko litzateke normalizazioa ez dela koofizialtasuna, ez dela legezko izatea, baizik eta berezko definizioak hizkuntzaren nagusitasunaren eta lehentasunaren kontzeptuak dakartzala, eta nolabait, esklusibotasunera daramala»

Arriskua duk,prozesua helmugatzat hartzea eta egoera normalizatua litzatekeena izkutatzeko,prozesuan pasa behar diren etapa horiek helburutzat markatzea,eta nik uste hori inportantea dela kontutan hartzea.

G.:Nik uste dut gaur egun normalizazioa hitza gehiago erabili dela zentzu desdramatizatzaile batean.

I.L.:Bai hori ere bai, normalizatzea bazirudik konfliktorik ez izatea, tentsiorik ez sortzea dela, eta hori ere



«Gizarte bati ezin zaio esan ibiltzeko hankak mozturik baldin baditu, edo gizarte bati ezin zaio eskatu normal bizitzeko aurretik ez baditu horretarako baldintzak»

zentzu horretan tranpa duk. Gezurra zirudik baina, ematen dik konfliktoa dagoela bakarrik euskararen eta gaztelaniaren artean, katalanaren, eta gailegoaren eta gaztelaniaren artean eta konfliktoaren sortzaileak hizkuntza minorizatuak direla. Aldi berean inoiz ez duk aipatzen hizkuntza guztiak konfliktoan daudela eta konflikto handienak hizkuntza zabalduenek dituztela. Ingelesak eta frantsesak, esate baterako, gatazka gogorreko adibide bat jartzeagatik. Bada hizkuntza internazionala izateko alorrean, gatazka izugarria eta eztabaida izugarriak zeudek bi hizkuntza hauen artean; pen-

tsa, frankofoniaren bilkura (Mitterrand-ek eta kanadarrek antolatu zutena) eta beste aldetik anglofonia zer esanik ez. Izugarrizko sokatirak, tentsioak eta konfliktoak daude eta hori ondo esaten du Txepetxek: «gaur egun hizkuntzen artean errealitatean, desberdintasunaren printzipioa da nagusi eta berez hizkuntzek berdintasunaren printzipioan oinarritu beharko lukete. Ez zegok hizkuntza bat bestea baino hoberik, edo ederragorik edo, handiagorik, baina hizkuntza batzuk dituk nagusi eta besteak menpekoak hizkuntz inperialismoa dagoelako eta egoera hori dagoen neurrian hizkuntza batzuk besteei jan egingo diete lekua eta gatazka sortuko da.

Konkretuki, frantsesaren eta ingelesaren artean, batek internazional mailako espazio hori galtzen badu, hizkuntza beste maila batera jaitsita gelditzen duk, alegia, frankofoniaren mugara eta frankofoniaren gatazka galtzen duen heinean, exagonora etab., etab. Bazirudik konfliktoa hor dugula, eta normalizazioa dela konfliktorik ez izatea, lasaitasunera iristea eta tentsioak bukatzea. Baina dudarik ez zegok normalizazioa prozesu bezala ez dela konfliktotik kanpo gelditzen, alderantziz baizik, konfliktoan parte hartzen duela hain zuzen ere indar-erlazioak aldatzeko, gaurko indar-erlazioak guztiz desorekatuak direlako, euskararen kontra.

G.: Lasaitasunaren sinonimo gisa normalizazioa erabilita, euskararen desagerpena garbi-garbia da.

I.L.: Noski,konformismoaren bidetik gaur euskarak ez zeukak irtenbiderik, ez euskarak eta ez inolako hizkuntz minorizatuk. Egoera minorizatuarekiko konformismoa suizidioren pareko gertatzen duk.

G.:Hor aipatu duk etapa trantsitorio batzuk daudela, ezta?

I.L.: Bai, aipatzen diren normalizazioa berdin elebitasun orekatua, berdin legeztatzea, berdin ofizialkidetasuna lortzea...horiek helburu bezala hartzen dira, eta nik uste diat ezetz, ez direla helburu bezala hartu behar.

G.: Galdera litzateke:helburu gisa, hizkuntz nagusi eta esklusibo hortan jarriaz helburua, eten daitezkeen etapa batzuk badaudela, fase batzu bezala.

I.L.: Nik uste diat Txepetxek helburu trantsitorio horiek definitzea intentatu duela bere lehen aipaturiko liburuan. Berak egiten duen eskema horretan abiapuntua izango litzateke «etenduraren gunea» deitzen duena. Gune horretan galera prozesuaren ralentizazio edo frenatze bat ematen duk, hizkuntz komunitate batek kontzientzia hartzen duelako eta ez dagoelako prest desagertzeko. Etenduraren gune horretatik abiatuz, lehen urrats bezala konpaktatzea deitzen duena proposatzen du. Nolabait esateko, hiztun osoak direnen nukleotik abiatuz, nukleo horren inguruan biltzen joan beharko luketela maila desberdinetako hizkuntzaren hiztun taldeek. Gero berak dagoen legeriaren kuestionamendua eta aldaketa planteiatzen dik, dagoen legeria oztopo gertatzen delako hizkuntzaren normalizazio-prozesua ziurtatzeko eta gero oztopo psiko-sozialak planteiatzen dizkik: jendearen hizkuntzarekiko atxekimendu-aldetik dauden eskasiak, jarrera hotzak edo epelak, edo hizkuntzarekiko gorrotoraino zabaldu daitezkeen jarrera ezkor horien positibizazioa, azken batean, hizkuntzaren autorreprodukzio-egoera batera iristeko. Orduan, era batera edo bestera esanda, ikusten duk etapa batzuk edo

bide batzuk badaudela gaurko egoera guztiz minorizatutik egoera normalizatu batetara iristeko bidean. Hori dudarik gabe,gizartearen dinamikarekin lotuta dago guztiz eta gizarte-dinamika horren nondik norakoak eta norabideak oso kontutan eduki beharrekoak dira prozesu hori gauzatu nahi baldin bada.

G.: Ez al da oso ikuspegi motza hizkuntz komunitateaz bakarrik ihardutea? Pentsatzea nukleo hori, hizkuntz komunitate hori, konpaktatze horretatik ailegatu daitekeela lege eta aldaketa batzutara? Justu %80a denean euskararik ez dakiena, eta hizkuntzaren dinamika soziala markatzen duena...

I.L.: Horiek dituk hain zuzen berak aipatzen dituen tapoiak eta zailtasunak eta hor zegok indar-erlazioaren problema. Nola lor daiteke egoera horretan hizkuntz minoritarioaren hiztunen nukleotik prozesu osoaren garapena? Gaurregun aginte politikoaren banaketa eta hizkuntz gaitasunaren banaketa guztiz dibergenteak izanik.

Maila horretan,nukleo horretatik abiatuz gero, konpaktazio hori eginez eta beste hizkuntz talde desberdin eta helduz erdaldun soil direnetaraino iritsiz, konpaktazio horren ondoriak eta eraginak eta sentsibilizazioak eta mentalizatzeak, dinamika hori euskararen alde jarriko lukete. Hori bide luzea duk. Nola egin? Euskaldun osoen nukleo horietara hurbileraziz sasielebidunak eta guztiz erdaldunak eta euskararen aldeko jarrera batera hurbildu araziz? Gizartearen dinamika hori euskararen normalizazio-prozesu horrekin lotuz?

G.: Hik uste duk...

I.L.: Oso zaila iruditzen zaidak hori definitzea. Maila honetan ia larrubizirik gaudek. Baina gauza batetan Txepetxi arrazoia ematen zioat, pentsatzen diat ideia zuzena izan daitekeela konpaktazioaren ideia hori. Jo dezagun azken 25 urteotan, batez ere 60tik edo 55etik 75a arte edo 80a arte hemen dinamika sozial hori abiatuta zegoela. Gertatzen da berealdiko frenada bat egon dela eta ez frenada bat bakarrik, orduko ametsak eta orduko esperantzak eta inplikazioak atzendu egin direlako baizik eta zailago ikusten diatelako beharbada, berriz sortzea, edo berriz abiapuntu hartara itzultzea.

G.: Euskarak uhin berri bat behar duela...?

I.L.: Nagitasun izugarria dago. Erdaldun gehienek ez dute euskarara hurbiltzeko ezer egin. Beste hainbat euskara ikasten hasi, utzi, berriz ikasten hasi... Jendeari bakarkako roilo hori zaila zaiok. Eta gizarte mailako prozesuan ere horrelako zerbait gertatzen dela uste diat. 75ean egon zen dinamika hori, eta dudarik gabe, horren ondorioak badaude, bestela ikus Iparraldearekin dagoen aldea, ez duk horrelakorik ematen. Gaur Donostian bertan Bilbon edo Gasteizen ikasketa mailako berdintsuko jendea jartzen badugu eta batek euskaraz badaki eta besteak ez, prestigio soziala euskararen aldekoa da maila horretan, nahiz eta gero euskararik ez erabili. Baina hori ez zegok Iparraldean, inolako prestigio-zentzurik ez dik euskarak, orain euskararekiko lotsa galtzen ari dela duridien arren. Oraindik bide luzea gelditzen duk.

G.: Horretara pasa baino lehen, etendurari buruz, hori duk komunitateak bere egoeraren kontzientzia hartu ondoren, aurrera ezin du jarraitu eta etendura bat sortzen da; momen-

tu hori klabe bezala azpimarratzen da; hor dena dela hizkuntz komunitate hori eta hiztunen komunitate hori, berezi egin behar da, ezta?

I.L.: Hizkuntzarena eta hiztunena?

G.: Iparraldean esaterako, kontzientzia handiagoa eta motibazio handiagoa daukatela euskararekiko galdu dutenek, hiztun direnek baino?

I.L.: Bai.

«Muga administratibo eta politiko horiek hor daude, kontrolatzen dute eta, azken batean, hizkuntz komunitatearekiko traba eta oztopo gertatzen dira»

G.: Hizkuntz komunitate horren barnean kontsideratzen dira, hizkuntza galdu baina kontzientzia daukatenak?

I.L.: Bai, hizkuntz komunitate baten barnean egon daitezke hizkuntz talde edo hiztun-talde moeta desberdinak: hiztun osoak, hiztun soilak, sasi-elebidunak eta erdaldunak... eta horiek guztiak ere hizkuntz komunitatea izango lirateke maila batean bederen. Bestalde, ikuspegi soziolinguistikotik begiratuta, hizkuntz komunitatearen barnean egon daitezkeen muga administratiboak eta politikoak absurdo bat dira. Nafarroa eta Komunitate Autonomoaren arteko diferentziaz gainera, Iparraldea beste Estatu bateko Legediaren baitan egotea, hori ikuspegi soziolinguistikotik absurdo bat da, ez du inolako zentzurik. Teorikoki ez du errelebantziarik baina muga administratibo eta politiko horiek hor daude, kontrolatzen dute eta, azken batean, hizkuntz komunitatearekiko traba eta oztopo gertatzen dira. Hori bai, dudarik ez dago Nafarroan euskara indartzeko eta berreskuratzeko interesatuak ez direla nafarrak bakarrik, edo Zuberoan edo kostaldean, baizik eta, hizkuntz komunitate osoa dagoela interesatuta eta inplikatuta arazo horretan, eta hizkuntz komunitate osoa esaten denean, moeta guztietako hiztunak esan nahi da, euskara dakitenak, erdizka dakitenak eta baita ez dakitenak ere.

G.:Arazoa kontzientzia duk, ezta? Hiztun ez denak baina arazoaren kontzientzia dutenek, gizabanakako bezala bere konpromezuak sortuko zaizkiok, komunitate osoarekiko bakarrik motibazio-papera hartzen dik, beste arlo batean, soziolinguistikoa ez denean, nazio bilakatzen da, komunitate batek bere izaeraren kontzientzia hartzen duenean, nazio bilakatzen dela. Orduan ez da bakarrik hizkuntzaren erabilpenaren inguruan sortzen den komunitatearen arazoa baizik eta arazo horren kontzientzia nazionala, giza sailen arazoa.

I.L.: Bai, sarritan hori adierazteko erabiltzen da hizkuntz nazionalaren kontzeptua hain zuzen, herri horren edo hizkuntz komunitate horren hizkuntza dela hizkuntza nazionala alegia, hizkuntz komunitate baten hizkuntza nagusi edo esklusiboa. Nazio kontzientzia eta hizkuntz kontzientzia elkarrekin loturik egon behar dute, askotan horrela ez bada ere. Horregatik ezin da euskal hiztuna ez den pertsona batek esatea edo uste izatea zerikusirik ez duela hizkuntzarekin ezer, berari ez dagokiola; hori da agintean

daudenen zenbaitek sinisterazi nahiko lioketena, euskarari buruz ez arduratzeko, alegia. Hori ezin da onartu. Izan ere komunitate baten partaide hori egon daiteke nolabait zaurituta, mutilatuta, edo hizkuntz komunitatetik kanporatua, ez bere aukeraz, baizik eta, eta hau da inportantea, berak zerikusirik izan gabe, hizkuntzarik gabe gelditu delako lurralde horretan eta bide guztiak erabili direlako horiek hiztun izan ez daitezen. Horien gaurko egoera ezin da baloratu ikuspegi sinkroniko hutsez, esate baterako, «momentu honetan honela daude horiek» ikuspegi diakroniko bat behar da esate ko, horretaraino iristeko nondik nora joan diren edo zer gertatu zaien. Erribera ez da euskalduna eta kitto, edo Erioxa eta Enkarterriak ez dira inoiz euskaldunak izan eto kitto. Hori, besterik gabe ezin da esan. Egoera horretara noiz, nola eta zergatik iritsi diren jakin behar da, eta ondoren, egoera horretatik irteteko zer egin behar den erabaki.

G.: Horregatik da inportatea euskararen zapalkuntzaren historia egitea, didaktikoa, eta zabaltzea eta guzti hori, gazte eta haurrek eta ezagutzeko.

I.L.: Bai noski. Hori ahal den erarik egokienean adieraztea oso beharrezkoa duk. Pedagogia egoki bat erabiliz, alegia, haurrek eta gazteek jakin dezaten zer nolako bideak erabili diren Euskal Herria deseukalduntzeko eta gaur egun aurkitzen den egoera horretara ekartzeko.

G.: Agian hirugaren atal bezala sortzen zaigu egitura juridiko-legalaren arazoa, ezta?

I.L.:Esan dugun prozesu hori garatu ahal izateko, normaltasunaren egoerara iristeko, alegia, dudarik gabe, oztopo dituk gaurregun dauden Konstituzioko lehen artikulua eta hirugarrena. Hor asentatzen dira nazio bakarraren eta hizkuntzen arteko desberdintasunen printzipioak eta, nolabait esateko, hirugarren artikulu hori da Konstituzioko artikulurik antikonstituzionalena. Orduan zer gertatzen da? Ataka hori, edo hor jarrita dagoen desberdintasunaren printzipio hori kaskada modura jaisten dela mailaz maila. Konstituzioak baldintzatzen dituelako Estatutua eta Amejoramendua, horiek baldintzatzen dituztelako Euskararen Legea eta "Ley del Vascuence" delakoa, eta hauek baldintzatzen dituztelako gero etorri diren dekretu, xedapen, agindu, etab.

«Garbi dago egitura juridiko-legal hau mantentzen den neurrian euskararen normaltasuna ezin dela lortu»

Traba horiek egonik, gaineratiko maila guztiek aje hori dakarte eta maila altuagoko erabakia denez, ezin duk inoiz ere gainditu; berehala antikonstituzionaltasunaren erreklamazio horiek hasten direlako. Alderdi horretatik garbi dago egitura juridiko-legal horrekin ezin daitekeela lortu euskararen normaltasunaren egoerarik, egitura hori mantentzen den neurrian euskararen normaltasuna ezin dela lortu; hizkuntzaren normaltasunak esijitzen duelako hizkuntz komunitateen arteko berdintasunaren errekonozimendua. Hori hemen printzipioz ukatua dagoenez, ez zegok onartzerik.

G: Normaltasunezko egoera lortzeko ordea, zer bide dago?

I.L.:Irtenbiderik gabeko legezko bide bat zera duk, legeak esaten duena: 500 mila firma biltzen diren eran eta Parlamentura gauzak eramaten baldin badira, birplanteatu ahal izango dela Konstituzioaren aldaketa etab., etab. Hori eginda ere gaurregun ez dik irten-



«Gertatzen da berealdiko frenada bat egon dela eta ez frenada bat bakarrik, orduko ametsak eta orduko esperantzak eta inplikazioak atzendu egin direla»

biderik, botazioa galdu egingo litzatekeelako.

Horren aurrean beste biderik bazegok. Baita diskurtso desberdinak ere: ezintasuna alde batetik, eta posibilismoa bestetik. Ezintasunaren diskurtsoak badizkik beste motibazioak Euskal Herrian, eta zera dituk, euskara eta gu gara biktimak eta beti kanpokoen erruz gaude gauden bezala, eta beti biktimismoaren joku hori. Nik uste diat hori tarteka agintarien ezintasuna justifikatzeko egoten dela: ezin direla gauzak egin, ez daudela beraien esku, eta dudarik gabe, onartu ezinezko jarrera da hori.

Planteiatu behar dena beste diskurtsoa da: errespontsabilitatearena, zer errespontsabilitate duten hizkuntz normalizazioaren aurrean eta ez etorri hemen zer ezin den esanez. Hori badakigu guztiok ondo asko eta.

Beste jarrera bat, tranpa-jarrera izan daitekeena, posibilismoarena da: posible diren gauzak egin behar ditugu etab. Bazegok halako politikaren definizio bat «politica ez el arte de lo posible» diona. Definizio hori ere tranposoa iruditzen zaidak, izan ere, politika ez duk hori, nire ikuspegitik behintzat, komunitate batek eta gizarte batek beharrezko dituen gauzak lortzea eta horretarako bideak egitea baizik. Beraz, hizkuntz komunitateari normaltasuna bizitzeko ezinbestekoa baldin bazaio, hori lortzeko errespontsabilitatez jokatzen hasi behar dela pentsatzen diat.

Puntu honetara iritsita, gogora datorkit Mackey jaunarekin Getxon izandako elkarrizketa bat non esaten bait zuen agintariek herritarrei hizkuntza erabiltzea herritarren beraien esku dagoela esaten dietela eta hori ez da horrela. Izan ere, hizkuntza bat erabili ahal izateko baldintza batzu eman behar dira eta agintariei dagokie hain zuzen baldintza horiek jartzea, ez bakarrik legeak eta dekretuak eginez, baizik eta gizarte-bizitzako alor ezberdinetan hizkuntza erabiltzeko baldintza egokiak lortuz eta laguntzak bideratuz.

«Agintariek herritarrei hizkuntza erabiltzea herritarren beraien esku dagoela esaten diete eta hori ez da horrela. Hizkuntza bat erabili ahal izateko baldintza batzu eman behar dira eta agintariei dagokie hain zuzen baldintza horiek jartzea»

Bestalde, hor sartuko litzateke lehen aipatu ditugun herri mugimenduen presioaren eta politikaren jokaera dialektiko hori. Dudarik gabe, hori sendotzen eta indartzen den neurrian, dauden legeen birplanteiamentu batera iritsi beharko dik memento batean, egitura juridiko-legal horren aldaketa esijitzeraino, eta, bestalde, egitura-aldaketaren zain egon gabe, egitura hori gainditu eraziko duen indar soziala benetan bultzatu eta indartu, eta eragin sozial hori sortu eta bultzatu egin behar du. Adibidez, elebakartasunean bizi nahi duten udalen iniziatiba bezalakoak sortuz eta indartuz. Bestalde, Nafarroa eta Iparraldearekin loturak

sendotu, ekintza-programa bat elkarlanean bideratuz etab., presio sozial bat egiten joateko.

G: Presio soziala, ordea, zertan da memento honetan?

I.L.:Azkeneko urte hauetan jaitsi egin duk eta hor zeudek indikadore batzu. Zenbait eskoletan eredu euskaldunak gehiagotzen joan arren, zenbateraino gertatu dira euskalduntze-iturri tartean dabiltzan ikasleentzat? Euskalduntze-alfabetatze-prozesuan ere, azken hiru-lau urtetan beherakada egon da. Bestetik, euskara esijitzen bada administrazioan, inpugnazioak berehala datoz.

Memento batean bazirudien euskara beharrezkoa izango zela hemen bizitzeko, baina azken bost urte hauetan ematen du jendea konbentzitu dela euskararik ikasi gabe pasa daitekeela, eta hori sektore askotan nabari da, bai irakaskuntza-munduan, administraritzan, gizarte-zerbitzuetan,... Dudarik gabe presioaren erlajatze bat egon da, eta hori lehen esan dugun tentsio eta konfliktoaren ikuspegitik planteiatu beharko litzateke. Baina nolabait hori ez da egin nahi.

«Memento batean bazirudien euskara beharrezkoa izango zela hemen bizitzeko, baina azken bost urte hauetan ematen du jendea konbentzitu dela euskararik ikasi gabe pasa daitekeela»

Normalizatu eta errazionalizatu egin nahi da prozesua eta arrazoizko gauzak egin behar direla esanaz datoz rebajatze planteiamentuak esijitzea. Sintomatikoa da administrazio publikoan perfilen inguruan ibili duten hizkera: perfil 0 nahi zuela PSOEk, ea hori zergatik ez zen onartzen eta erdi-mailako konponketa bat egin behar izan dute.

Lehen esan duguna, ez baldin badago bai gizarte-mugimenduaren aldetik eta bai aginte aldetik inplikazio fuerte bat, baina ez itxurak betetzeko, benetan aurrera ateratzeko eta benetan normalizazio-prozesuan abiatzeko baizik, ez dugu ezer lortuko.

G: Eta nola ikusten duk, nola sortu, zer baldintza sortu, hori mugitzen hasteko? Zerbait positiboa ere esateko...

I.I. : Egia esateko bada sintoma baikorrik ere.Azkeneko 20-25 urteotan nik uste diat egin diren ahalegin guztiak, bai irakaskuntzan eta bai beste zenbait alorretan onak direla. Gauza bera esan beharko diagu komunikabideetan (irrati-munduan, telebistan, prentsan) egin denari buruz.

Euskal Herrian, euskararen alde eta euskararen promoziorako inoiz baino gehiago egiten ari duk, inoiz baino gehiago ari dituk euskara ikasten, haur eta gaztetxo mailan behintzat. Egiten den guzti hori ezinbestekoa duk, nere ustez, baina ezinbestekoa bezain eskasa. Ez da nahikoa, hizkuntza baten normalizazio-prozesuak asuntoari askoz serioago heltzea suposatzen duelako. Benetan inplikatu diren lurraldeetan, edo nazioetan, arazoari broma gabe heldu diote. Bi estremo jartzeagatik, muga-tope bezala Israel jartzen baldin bada, tartekoak izango dira Finlandia, Flandria eta, beste muturrean jarri beharko geniake Irlandako

«Euskal Herrian euskararen alde eta euskararen promoziorako inoiz baino gehiago egiten ari duk. Egiten ari den guzti hori ezinbestekoa duk, nere ustez, baina ezinbestekoa bezain eskasa»

kasua, inibizio lotsagabeena bezala. Alderdi horretatik ez baldin bada benetan inoplikazio serio bat egiten, ez dago irtenbiderik. Egin den guztia? Nik esango niake gutxitxo egin dela.

G.: Bazegok kuantifikaziorik? Zer balio dik esateak «sekula baino gehiago egin da», «ez da nahikoa»? Ze hemen kuantifikatu daiteke zenbat sartzen den honetarako eta zer besterako. Ze, telebista, irratia, guzti horiek kontatuta %2-3ra ez da ailegatzen. Hizkuntza batek zer eskatzen du aurrera ateratzeko?

I.L.: Ez zekiat nik datu hori. Zerbait badiat ordea, Israelgo aurrekontuetan zenbat erabiltzen zuten hizkuntzaren promoziorako eta zituzten aurrekontu guztiak, baina ez diat eskuartean.

G.: Kuriositate bat huen.

I.L.: Dudarik ez ezak egin, hemengoa %10era iristen ez baldin bada, hangoa gutxienez 20tik pasako dela, proiektuari heldu diotelako serio. Beste arrazoi bat izango duk, ea nola garatu zuten, zer zirkunstantzia gertatu ziren... Hori beste historia bat duk, baina hori egin dute eta aurrera atera dira a tope inplikatuz eta inplikatu eraziz guztiak.

G.: Orduan zer? Instituzioen diskurtsoa izan duk, ez genuen baliabiderik, lehen gogoa genuen, orain badauzkagu baliabideak. Gogoa falta da orain?

I.L.: Orain baditugu baliabideak, baina lehentasunen tranpa zegok: urjentzia, lehentasuna eta prioritatea... Eta azken batean prioritate-mundu horretan sartzen garenean galtzaile beti euskara ateratzen da, zeren beste edozein ekintzak izaten bait dik lehentasuna eta, zeresanik ez, gobernu mailan hizkuntz plangintzaren eta hezkuntzaren kasuetan.

Udaletxeei dagokienez ere, legealdi bakoitzean euskarari eta euskal kulturari dagokien alor hori, guztiz marjinala gertatzen duk herri guztietan.

G.: Sozialki eta politikoki aginte ezberdinei dagokien eta betetzen ez duten zeregin horrek zer kalte egiten ziok hizkuntzari edo hizkuntzaren normalizazio-prozesu hori abiatzari?

I.L.: Oraintxe aipatzen genuen kontu horretara gatoz berriro, hizkuntzaren arazoaren marjinalizaziora. Hizkuntzaren arazoa ez duk lehentasunetan edo prioritateetan edo garrantzi handia duten arazoen artean agertzen. Garrantzi handiagoko gauza horiei erantzuten zaie eta errespontsabilitate hortik zihoak. Tratamentu marjinala ematen zaio euskarari eta aintzakotzat ez da hartzen, nere ikuspegitik behintzat. Azken baten hor kontua zera duk egiten ari garen ala ez, eta nahi dugun ala ez. Noski badaudela premia ekonomiko-sozialak eta kulturalak, guzti horiek erantzun bat eskatzen dutela, baina zer nolako ekonomia eta gizartea behar ditugu? Pentsatu behar dugu ere, kanpokoen ere-

duak eta ondorioz masifikaziora eramango gaituzten bidetik joan nahi dugun, ala gure identitatearen eta nortasunaren bidetik? Hainbeste aldiz aipatzen dugun identitatea eta nortasuna, gure hizkuntza, etab., hitz hutsak dituk eta ez dituk gauzatzen benetan errealitate honetan, horrelako erabakiak hartzerakoan. Bestetik, pentsatzen diat hik esaten duan blokeo sozial horren arriskua, eta batzuen aldetik behintzat azken joera hori duk, euskara delito bihurtu nahia edo kriminalizatu nahia dela. Esate baterako hor dago PSOEk daraman inpugnazio-politika sistematikoa, jarrera militante euskararen kontra. Horrek horrela jarraitzen duen neurrian atasko totala izan zitekek.

G.: Diskurtso pesimistagoa edo ezkorragoa egitea izango da baina zortzi urte hauetan presio soziala ahuldu da, orain dela bi urtetik hona BATEGINIKen inguru horretan eman zen Gasteizko paktoa eta berehala ikusi genuen horren traslazio bat euskararen arloan ere. Hor zuzen-zuzen doa paktoa herri-mugimenduen eta agintarien inplikazioaren harreman dialektikoaren (hik aipatzen duanaren) aurka, ezta? Garbi dago euskararen arloan herri zati handi bat dagoela, insituzio hauen legitimazioarekin desadostasunean eta pakto horrek ematen duen zatiketa horrek garamatza ikustera nola herri-mugimenduak batere bitartekorik gabe eta instituzioek har ditzaketen erabakiak adostasun sozialik gabe geratzen diren. BATEGINIKen geroztik egin diren gauza pila batean hori nabarmentzen dela, bretxa hori, eta horrek sortzen ziguk halako...

I.L.: Hor beste historia bat ere bazegok eta hori zera duk, hizkuntz komunitatearen kontzeptuari begira lana zailtzen duen egoera bat dagoela eta ez bakarrik instituzioen aldetik. Gaurregun oso zaila gertatzen duk zerbaiten inguruan indarrak biltzea eta bildurik mantentzea, etiketazio-mania bat dagoelako eta... Orduan euskararen inguruan iniziatiba bat bideratu nahi izatea, BATEGINIKen kasua, ez duk posible gertatzen; mania hori tartean dagoelako. Hik esaten huen bretxa hori eten beharra zegok. Problema duk nola, baina sare sozialaren eta herri-mugimenduaren rekonposizio edo biltze hori egin beharra zegok. Adibide bat jartzearren, konkretuki Argia-ren inguruan, neri iruditzen zaidak inolaz ere ez dela ametitu behar etiketa-mania horren funtzionamendua nagusitzen uztea, eta esatea «Ni, nola horrelako joeratakoa naizen, bada ez dut Argia-rik erosiko» edo «Nik, nola ez dakidan zein alderditakoa naizen, ez dut Argia-rik irakurriko», eta hori askotan ikusten duk; euskaltzalea eta zera : «Joino, Argia, zer? hori hartzen duzu ala?» edo «holakorik irakurtzen duzu?» edo... Eta nik behintzat erantzuten «zuk zer irakurtzen duzu», «ba al dago besterik?». Nere

«Orain baditugu baliabideak, baina lehentasunen tranpa zegok: urjentzia, lehentasuna eta prioritatea... Eta azken batean prioritate-mundu horretan sartzen garenean galtzaile beti euskara ateratzen da»

ustez Argia bezalako errealitate bat guztiz baliosoa duk, astero astero informazio bat emateaz gainera, euskal gizarteko alor eta alderdi ezberdinen jarrerak eta eritziak jasotzen dituelako eta argumenturik gabe uzten du zenbait jende. Imanol Muruari, Autobidearen aurkako koordinadorakoei eta gero ez zekiat beste zeini elkarrizketak egiten dizkielako, etab. Horrelako iniziatibak neretzako izugarrizko balioa dik, eta zoritxarrez gutxitxo zeu-



«Masifikaziora eramango gaituen bidetik joan nahi dugu, ala gure identitatearen eta nortasunaren bidetik?»

dek, baina, dauzkagunak mimatu beharko genizkiake eta ez zegok eskubiderik alde horretatik gertatzen ari dena gertatzeko.

Zer subentzio ematen diote Argia bati bizitzeko?

G.: Erabateko erasoa!

«Elkar kondenatuz eta deskalifikatuz ez gaituk inora helduko. Euskarak guztion beharra zeukak eta guztiok diagu euskararen beharra, Euskal Herri izatea nahi badugu...»

I.L.: Nire ikuspegitik horrelako jarrerak onartu ezinezkoak dituk. Elkar kondenatuz eta deskalifikatuz ez gaituk inora helduko. Euskarak guztion beharra zeukak eta guztiok diagu euskararen beharra, Euskal Herri izatea nahi badugu... Gainera, nik uste euskararen inguruan biltzeko ahalegin batzuk kale egiten badute, BATEGINIK kanpainaren kasuan bezala, ez diagula etsi behar. Izan ere, gizarteko gune jakin batzutan, Administraritzatik hasita Euskararen irakaskuntzan, (haurtzaindegitik Unibertsitateraino...) eta helduen euskalduntze-alfabetatze-mugimenduan dihardutenen artean, Prentsan, Argitaletxeetan, Kulturgintzan orohar, badagoela euskararen alde jokatzen ari den jende-multzo bat, eta zaila bada ere, horiek guztiak bileraziko dituen iniziatibak bultzatzen ahalegindu behar dugula, euskarazko egunkari bat sortzeko ahaleginak eginez, adibidez.

Iñaki Uria
Joxemi Zumalabe